

IKASLEEN GOGOBETETZE INKESTA 2018KO EKAINA


APL

GETXOKO "ANDRES ISASI" MUSIKA ESKOLA


ERABILTZAILIEN GOGOBEETZE INKESTA 2018ko EKAINA

- Inkesta mota: Webaren bitartez 2018ko ekainean egindako kuantitatiboa
- Unibertsoa: 1049 ikasle (edo gurasoak, adingabea bada)
- Lagina: 137
- %95eko fidagarritasunarekin %8ko errorea izateko 131 erantzun behar dira.
- Balorazio globala 1etik 10era neurtu da: **Balorazio orokorra 7,8koa izan da**
- Jarraian adierazitako analisi puntuak 1etik (gutxieneko puntuazioa) 4ra (gehieneko puntuazioa) neurtu dira, eta honako hauek dira:
 - Administrazioa:
 - *Tratu pertsonala, on line izapidetzea eta izapidetze pertsonala, eskatutako eta jasotako informazioa*
 - Musika tresnen familiak, musika hizkuntza eta taldeak
 - *Ikasteko prozesuaren jarraipena, irakasleen eskakizuna, irakaskuntzaren kalitatea eta balorazio globala*
 - Musika eta mugimendua
 - *Ikasgelan egiten den jarduera, jasotako tratu pertsonala eta balorazio globala*
 - Kontaktua musika tresnarekin
 - *Kontaktu jardueraren formatua eta ikasleentzat lagungarria ote den musika tresna aukeratzeko*
 - Tutoretzak
 - *Jasotzen duten buletin edo txosten pedagogikoa eta elkarrizketak tutorearekin*


ADMINISTRAZIOAREN EMAITZA




TRADIZIOAN ERROTUTAKOEN EMAITZA




PIANO EMAITZA





HAIZE EMAITZA



HARI EMAITZA




MUSIKA HIZKUNTZAREN ETA MUSIKA ETA MUGIMENDUAREN EMAITZA





MUSIKA HIZKUNTZAREN ETA MUSIKA TRESNEN FAMILIEN ITEM-EN LABURPENA


	TRADIZIOAN ERROTUTAKOAK	PIANOA	HAIZEA	HARIA	MUSIKA HIZKUNTZA
Jarraipena	3,4	3,6	3,1	3,5	3,1
Eskakizuna	3,5	3,5	3	3,1	3,2
Kalitatea	3,7	3,5	3,3	3,5	3,3
Balorazioa, oro har	3,7	3,7	3,3	3,5	3,2



TALDEEN EMAITZA ETA MUSIKA TRESNAREKIN KONTAKTUA IZATEKO JARDUERAREN BALORAZIOA



TUTORETZEN BALORAZIOA



BILAKAERA

- 2013an egindako azken inkestan balorazio globala 8,2koa izan zen; fidagarritasuna %95ekoa zen eta lagin errorea, berriz, %5,09koa. *2018ko ekainean balorazio globala 7,8koa izan da; fidagarritasuna %95ekoa zen eta lagin errorea, berriz, %7,8koa.*
- Datu horiek 2013an egindako azken inkestarekin konparatu daitezke:
 - Musika Hizkuntzako irakasleak:
 - Irakaskuntzaren kalitatea 8,3koa zen 2013an, eta *8,25ekoa izan da 2018an.*
 - Hezkuntza prozesuaren jarraipena 7,9koa zen 2013an eta *7,75ekoa izan da 2018an.*
 - Balorazio globala 8,3koa izan zen 2013an eta *8koa 2018an.*
 - Musika tresnen irakasleak:
 - Irakaskuntzaren kalitatea 9,1ekoa zen 2013an, eta *2018an 8,75ekoa izan da.*
 - Hezkuntza prozesuaren jarraipena 8,9koa zen 2013an eta *8,5ekoa izan da 2018an.*
 - Balorazio globala 9,2koa izan zen 2013an eta *8,75ekoa 2018an (ia puntu erdi baxuagoa).*
 - Tutoretzak:
 - Buletin txostenari dagokionez, 7,8koa izan zen 2013an eta *7,5ekoa 2018an.*
 - Tutorearekin izandako elkarrizketei dagokienez, 8,6koa izan zen 2013an eta *8koa 2018an (puntu erdi baino gehiago jaitsi da).*
 - Administrazioa:
 - Tratu pertsonala 9koa izan zen 2013an, eta *8,5ekoa 2018an (administrazio eta irakasleen tratu pertsonala barne).*
 - Eskatutako informazioari dagokionez, 7,3koa izan zen 2013an eta *8,25ekoa 2018an.*

Lortutako emaitzak ikusita, tutoretza prozesuaren gainean esku hartuko dugu, noiz eta nola egingo diren definituz. Halaber, telefono deiak erabiliko ditugu hobekuntza ekintza horren betetze maila neurtzeko tresna gisa. Aldez aurretik eskertzen dizuegu zuen laguntza.

HOBETZEKO EKINTZAK - TUTORETZAK

Hobekuntza ekintza hori abiaraziz orain arte egiten ari ginena antolatzea da helburua edo, hobeto esanda, une puntualetan, denok jarraibide berberak aplikatuz lan egitea.

Gure eguneroko lana - EGIN

- Helburu zehatz batera zuzendutako ekintzak planifikatu eta programatzea
- Lan egin
 - Arlo pertsonalean ikasleen gaitasun eta trebetasunak deskubrituz.
 - Arlo sozialean bakoitzak hezkuntza aukerak ahal bezainbeste aprobetxatzeko lan egitea, gaitasun eta trebetasunen arabera.
 - Etekin handiagoa lortzeko.
 - Ikasleek dituzten gaitasunak deskubritu eta gara ditzaten, egindako ahaleginaren emaitzak
 - Hezkuntza prozesuan ikasten lagunduz, kontuan hartuz ikasleen mugak baina garapena gogoan izanik, musika tresna jotzeko autonomia lortzera bideratuz.
 - Ikasleak sustatu, motibatu eta laguntzeko, irakaskuntza arautua egin nahi eta ahal dutela deskubritu dezaten.
 - Taldeetan parte hartzea lortzeko, errespetua, entzutea eta elkartasuna nabarmenduz.

Horretarako - EGOKITU

- Ikasleen aldaketetara adi gaude beti, autonomia lortzeko gaitasun eta trebetasunak garatzeko ekintzak diseinatze aldera.
- Orientazioa ematen diegu eta ekintzak lantzen ditugu ikasleak babesteko eta gaitasun egokiak jasotzeko arazo egoerei aurre egin diezaieten.
- Badakigu entzuten; tutore orientazioa feed-back bat da.
- Ikasleei emandako mezua bakarra izan behar da eta errepikatu egin behar da zuzendaritzara, irakasleengana edo administrazioko laguntzaileengana gerturatzean.
- Ikasleak jakin nahi duena zer den, eta noiz eta nola esan behar den jakin behar dugu.

TUTORETZA PROZESUA - PLANIFIKATZEA

Ikasturtean zehar bi kontaktu pertsonal:

- a. Musika tresnarekin hasten diren ikasleentzat.
 - IRAILEAN ikasturteko gida banatu eta eskolako proiektua aurkeztuko zaie, baita ikasturtean zehar lortu beharreko helburuak ere.
 - Bigarren kontaktua beste une batean egingo da, ikasturtean zehar irakasleek egokitzen jotzen dutenean.
- b. Musika tresna ikasten ari diren ikasleentzat eta lehenengo mailan dauden ikasleentzat:
 - Irakasleek ebatziko dute ikaslearekin edo familiarekin harremanetan jartzeko bi une egokienak zein izango diren. Lehen tutoretza lehen hiruhilekoa bukatu aurretik egin beharko da. Bertan ikasturtean zehar lortu beharreko helburuak planteatuko dira.
 - Bigarren kontaktua beste une batean egingo da, ikasturtean zehar irakasleek egokitzen jotzen dutenean.

Hurrengo ikasturtean musika tresna aukeratu behar duten ikasleen N1M3 eta N2M1-ko tutoreek MARTXOAN egingo dute bilera familiekin, seme-alaben musika tresna aukeratzen orientatzeko.

TUTORETZA PROZESUA BETETZEN DELA NEURTZEKO TRESNA - AZTERTZEA

Tutoretza prozesua betetzen dela horrela neurtuko dugu:

- Musika tresnarekin hasten diren ikasleentzat:
 - URRIAN ausazko telefono deiak egingo dizkiegu familiei eta ikasle helduei tutoretza prozesuari buruz galdetzeko.
 - Hurrengo deia EKAINEAN egingo dugu.
- Musika tresna ikasten ari diren ikasleentzat eta lehenengo mailan dauden ikasleentzat:
 - Tutoretza presentzian bertaratzeko irakasleek ikasle eta familiei deialdia noiz egingo dien ez dakigunez, URTARRILEAN (oporretatik itzultzerakoan) ausazko telefono deiak egingo zaizkie familiei eta ikasle helduei tutoretza prozesuari buruz galdetzeko.
 - Hurrengo deialdia EKAINEAN egingo dugu.